



LEHEN SEKTOREA LEHENETSI

Urte gehiegi daramatzagu gelditu gabeko gainbeheran, lehenengoa izan arren errekonozimendu hori ematen ez zaion sektore batean lanean. Poliki poliki, pausoz pauso, sare administratiboa, lan burokratiko eta legezko betebeharrak ugaritzen dizkiguna ehunduz joan da, geroz eta katramilatuagoa, geroz eta gainkostu, geroz eta lan gehiago sortzen diguna.

Lehenengo sektoreak elikagai eta lehengai ekoizle izatetik haratago, lurraldearen gehiengoa kudeatzen dugu, baina ez zaigu proportzio berdinean errekonozitzen lan hori, ez babesten gure jarduna, ez lantzen ditugun lurrak edo zaintzen ditugun animaliak. Euskal Herrian, eta Gipuzkoan ere, hau ez da salbuespena, eguneroko ogia baizik.

Europa osoan zehar burutuz joan diren protestetako aldarri askorekin bat egiten dugu, baina aurreko asteetan esaten aritu garen moduan, Nekazaritza Politika Bateratuak, edo Europako salerosketa libreko hitzarmenak dakartzaten arazoetatik harago ere joan beharra dago, gure herritik, gure lurraldetik, baserritarren egunerokoa hobetzeko neurriak martxan jar ditzakegu, eta hori da sakondu behar duguna. Horregatik, behin eta berriz, diskurtso propio bat eta egutegi propio baten beharra mahai gaineratu dugu, Otsailearen 6ko estatu mailako mobilizazioetatik ere tarte utziz, euskal baserritarren egunerokoarekin eta beharrekin zer ikusirik ez duten gauza gehiegi nahastu dira eta estatuko mobilizazio horien artean.

Gaur, Gipuzkoako EHNE, ENBA eta Baso Elkarreak, lurraldeko elkarte, baserritar kooperatiba eta kolektibo zabalaren babesarekin antolatu dugun mobilizazio hau horregatik amaituko dugu Gipuzkoako Batzar Nagusietan, hauek dutelako herritarrok ordezkatzeko betebeharra. Batzuk Foru Aldundia gobernatzen dute, beste batzuk udalak edo oposizio aktibo bat egitea tokatuko zaie, Gipuzkoan, Gasteizen, Madrilan edo Bruselan. Baina denek dute zer esana eta zer egiterik gure egunerokoa hobetzeko.

Arestian genion, Batzar Nagusietan gaude ordezkatuak gipuzkor guztiak eta ez genuke amaitu nahi gaurko ekitaldia, gipuzkoako herritarrengana jo gabe eta, lehen sektoreak bizi duen egoeraren aurrean, heuren elkartasuna eta babesa aldarrikatzeaz gain, beren konpromezua aktiboa eskatzen diegu, egunerokoan, gure lurraldean ekoizten diren elikagai eta lehen gaien alde egin dezaten.

ERAKUNDE, JENDARTEA ETA SEKTORE ARTEKO HARREMANA

Askotan aldarrikatu eta eskatu dugun errespetua eta errekonozimendua praktikara eramateko garaia da. Ezinbestekotzat jotzen dugu baserritarrok eta gure erakundeek zor zaien trataera hori izatea, gure lanaren berezitasun eta zailtasunekin enpatia bilatzea eta arazoak konpontzen laguntzeko borondatea duten lan talde eta arduradunak izatea, bai teknikoak eta bai politikoak.

Ezin dugu onartu, pasa behar izaten ditugun mila eta bat ikuskaritza horietan, baserritarrak jazartzera etortzea laguntzera etorri ordez, gaizkile batzuk bagina bezala, edo ingurugiro kaltetzaile batzuk bagina bezala gure aurka jardutea, isunak jartzeko aitzakia bila balebiltza legez.

Halaber, jarrera berberak jasaten ditugu ordezkaritza lana egin behar dugun erakundeok, eta horrek amaiera behar du. Agintari politikoak eta langile publikoak elkarlanerako bidelagun behar ditugu, egurenoko arazoak konpontzeko aktibo eta ez hauen sortzaile.

Beraz,

- Foru Aldundia, EUEDEL eta Eusko Jaurlaritzarekin gobernantza sistema iraunkor eta eraginkorra onartu behar da nekazaritza eta basogintzako ordezkariekin.
- Prozedimenduak arintzeko eta gutxitzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta sektoreko ordezkarien arteko lan taldea osatu 2 hilabeteko epean. Ezinbestekoa da irizpideak bertan finkatzea, teknikarien arteko desberdintasunak ekiditeko.
- Lursail, mendi eta basoek, aisialdia eta kirola lehenesten duen jendarte aldetik jasotzen duen trataera ikusita, behar beharrezkotzat jotzen dugu, orain urte gutxi egin zen zirriborroa, Landa Jabetzaren estatutua berreskuratu, eguneratu eta tramitatu.
- Herri langileen aldetik, sektorearekin elkarlanean aritzeko jarrera ezinbestekotzat jotzen dugu eta horrexegatik, herri langile eta sektoreko teknikarien arteko elkarlana da oinarria eta buruzagien aldetik, behar beharrezkotzak jotzen dugu eta horrekin batera, norabide horretan, direktriza argiak.
- Hainbat azpisektoreetan, eman ohi diren auditoria, kontrol eta tramite errepikatuak gutxitzeko eta bateratzeko lan taldea osatu erakunde eta sektorearen ordezkarien artean. Informazioa era digitalean dagoen momentutik, paperean izateko bikoiztasunak ezabatzeko ere adibidez.
- Azpisektore guztietan eta bereziki, mahastizaintzan sarri askotan gerta ohi diren lursail erabilpen eta titularitate aldaketak gauzatzeko beharrezko diren tramiteak eta baimenak azkartzea eskatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- Ustialeku koaderno digitalaren derrigortasuna ezabatu eta borondatezkotasuna onartu.
- 2023-2027 eperako PACean onartutako kondizionalitatean txertatutako BCAM 10, ximaurrak eta mindak arautzen dituenak, ezabatu, eta minden aplikazioa bai kainoi edo mangeraz bermatzeko lan egitea, lurralde menditsuaren eta belardi ugarien izaera errekonozituz.
- PACeko laguntza guztien aurrerapena, Europako agintariak markatutako ehunekoan, urriaren erditik aurrera
- Inbertsiotarako Laguntza Planaren deialdiak ebazpenak, gehienez, 3 hilabeteko epean gauzatu eta ebazpenarekin batera, onartutako dirulaguntzaren %90 aurrerapena egin.

- Basotako inbertsiotarako laguntza deialdien tramitazioa, Bizkaian eta Araban bezala, Baso Jabe elkartearen esku uztea eskatzen dugu.
- Nekazaritza eta basogintzako inbertsio planak, ICM edota agroanbientalen partidak indartu. Bestalde, ICMen onuradun izateko ATP izaeratik profesional izaera izatea berreskuratzea beharrezko deritzogu.
- Beren ekoizpena eraldatzen duten baserrietako obradore eta instalakuntzetako baldintzak malgutu, Europako beste hainbat herrialdeetan gerta ohi denarekin parekatuz.
- Aurrez hartu beharreko zitaren ezinbestekoa ezabatu eta aurrez aurreko zerbitzua mantendu. Digitalizazioa bide ezinbestekoa eta garrantzitsua da, baina baserritarroki lana eta gastuak kentzeko bada, ez alderantziz.
- Astelehenetik igandera lana egiten dugun sektorea izaki, arreta zerbitzua maila berean eskaini behar du administrazioak urgentziazko gestioak egin ahal izateko, ostiral eguerditik astelehen goizerrate iñork ez baitu erantzuten.
- Prozesu informatiko eta aplikazioak hobetzen inbertitu behar da. Bere garaian Nekagipekin egin zen moduan, guztiz garatu gabe geratu diren arloak ardi, zaldi hazienda eta gainerakoak oso zaharkituta daude eta. Basogintzaren alorrean ere, badira hainbat lan (baso mozketak, erreketak baimenak, basoa makinaz garbitzeko baimenak, dirulaguntzak, etb) egin ahal izateko, Aldundiaren sistema informatikoa eguneratu beharko litzateke.
- Sektoreari zerbitzuak ematen aritzen diren elkarte eta kooperatibak indartu behar dira, profesional kualifikatuak formatu eta mantentzeko errekursoak izateko Foru Aldundiarekin dituzten hitzarmenak hobetu behar dira.
- Krisi egoerei aurre egiteko prozedurak. Eguneroko arazoez gain, GHE edo banda marroia bezalako larrialdiak gertatzen direnerako, beharrezko diren prozedurak eta funtsak aurreikusi behar dira, beharrezkoa den instituzio denen parte hartzerekin, bai udalak, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Bi gaitz hauen kasuan konkretuki, krisi hori ez da bukatu.
- Abeltzaintzan ugaritzen ari diren gaitzen gestioa sortzen ari den arazo larriak aztertzeke (saneamentu kanpaina behietan, mingain urdina, IBR, hegazti gripea,..) mahai sanitarioaren sorrera, aholkularitza juridikoarekin, legezko betebeharrak zein diren zehaztu eta sektoren sortzen ari diren gailak eta lan izugarria aztertu eta ahal den neurrian gutxitzeko.
- Erlezaintzak oso egoera larrian bizi da bai barroaren eraginez bai liztor asiarraren erasoengatik, beraz, Foru Aldundiari eskatzen diogu helburu hauei aurre egiteko lan mahai osa dezala, sektoreko eragileekin elkar-lanean.
-
- COVID pandemiaren garaian debekatu egin ziren hainbat behi espektakulu, sokamuturrak, txahaltxoak, etb. Eta orain, orokorrean hartuta baimendu badira ere, animalien ongizatearen legearen ondorioz, 16 urtetik azpiko jendearentzako espektakuluak debekatu egin dira eta, puntu hori aldatzea eskatzen dugu.

- Lurraldeko proiektu estrategiko deritzenak martxan jartzeko (Basotik, OB Gunea edota gestio zentruen bateratze proiektuen modukoetan) sektoreko eragileen babesak bilatzea, batik bat zuzenean eragiten dienena.

INGURUMENA ETA LURRA

- Lehen sektorea lehenetsi behar da. Gure jarduera da Gipuzkoan mantendu nahi den ondasun naturala sortu duena, eta orain sektorea jipoituta ingurune hori bera mantendu nahi izatea ez dirudi oso koherentea.
- Administrazio publikoei baserritarrak lur gabetzeko aukerak murriztu, ingurugiro babes neurriak edo proiektuei interes orokorreko deitzea aitzakia ez daitezen izan hain urria dugun ondasun bat eskuratzerakoan. Honen harira, Euskadiko Natur Ondarearen Kontserbaziorako 9/2021 legearen 43 artikulua eta Gipuzkoako Menditako 7/2006 Foru Arauaren 38 artikulua, modu egokian eta baserritarren bideragarritasuna lehenetsiz aplikatzea aldarrikatzen dugu.
- Ingurumen administrazioaren legearen aldaketa, baso mozketak egiterakoan, ingurumen inpakto txostenak egiteko derrigortasuna, legearen tramitazioan zehar aurrakusten bezala, onartutako 5 hektareetatik 25era pasatuz.
- Zenbait espeziea babesteko araudien eraginpean, kultur interes bezala kalifikatutako gunetan eta Natura 2000 sarean kokatutako ustialekuentzat eta basogintzarako ere, direktibek aurrekusten dituzten ordainketa konpentsatzaileak onartu eta 2025ko aurrekontuetan txertatu helburu horretarako dirupartida.
- Herri mendietan, abeltzaintza mantendu eta indartzeko ezinbestekoak diren azpiegiturak eta garbiketak gauzatzeko konpromiso eta aurrekontua, bai Foru Aldundi eta toki administrazioei, udalak edo bereziki, Enirio-Aralar mankomunitateari.
- Jabego pribatuko belardiak hobetzeko eta sortzeko gehiago laguntzea, eta basoa belardi bilakatzeko erabilera aldaketa egiteko maldaren portzentaia egokitzea.
- Uraren kanona ezabatu baserrietan, bereziki, ur hornidura publikoa bermatua ez duten baserrien kasuetan.
- Energia berriztagarriak kokatzerakoan, PTS agroforestalak dioen arabera, balio handiko lurretan EZ kokatzea, halaber, debeku hau, malda arineko lur makinagarrietara zabaltzea.
- GFaren lur funtsa indartzeko diru partida bat txertatu 2025 urteko aurrekontuetan.
- Gipuzkoako minifundismoari aurre egiteko politika sustatu, lursailak batzeko eta kontzentrazioa errazteko araudiak bultzatuz, bai udal ordenatzetan eta lurraren legean, nekazal jardueraren bideragarritasuna ahalbidetzeko.

FISKALITATEA

- Gaur egun, behin behinekotasun izaerarekin onartutako IRPFren forfaita, betiko egonkortzeko legedia sustatu.
- BEZaren itzulketa azkartzeko konpromisoa eskatzen diogu Foru Ogasunari, baserrietako likideza hobetze aldera.
- Lur funtsa publikoari lursailak utzitako pertsonentzat onura fiskalak onartu, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politika 17/2008 legean aurreikusitakoa gauzatzuz.
- Lehen sektoreak gizarte osorako aportaturiko zerbitzu ekosistemikoak kapitalizatzeko araudi fiskala sustatu.
- Baserriak, makineria, lurrak edo basoak transmitzea erraztu, kargak kenduz dohaintzei, edo salerosketei, erreleboa edota lur sailen batzea errazteko.
- Baso landaketak egitea sustatu eta abandonoa ekiditeko, basogintzaren zerga sistema eguneratu, beti ere, abandonoarean aurretik, baso landaketa lehenetsiaz.
- Hondamendi naturala sufritu ondorengo mozketetatik sortutako irabaziei zergarik ezabatu edo gutxitu.
- Tiket Bai funtzionamendua erraztu eta bere aplikazioa lehen sektoreko errealitatera egokitu .

BASOGINTZA

- Basogintzak lurraldeari eta gizarteari egiten duen lanaren aitortza publikoa, erakunde ezberdinen aldetik, aldarrikatzen dugu.
- Basogintza foru eskumena denez, GFARI eskatzen diogu defenda dezala bere eskumena, basogintza alorrean berezko ez diren eskumenetan sartzen diren udaletxeen jokabide aurrean.
- Banda marroia sekulako hondamendia suposatu du Gipuzkoako basoan. Erakunde arteko elkarlanaz entzun dugu baina, tamalez, beren emaitzak ez dira Gipuzkoako lurraldera iritsi. Honen haritik 8.4 berriro martxan jartzea eskatzen dugu atzeraeraginezko izaerarekin.
- Laguntza planetan hainbat aldaketa proposatzen dugu, hala nola, moduluak igotzea, norgehiagoko sistema baso errealitatera egokitzea, laguntza ebazpenen aurreraketa, ...
- Jabetza publikoko basoetan, erlezaintzarako suposatzen duen onura kontuan izanik, landaretza bertakoa eta meliferoa, ehuneko txikian bada ere, txertatzea proposatzen da.
- Basoaren kudeaketa planak laguntzen diren bezala, ondoren, datozen urte eta hamarkadetan, kudeaketa planaren aholkularitza eta jarraipen tekniko ere lagundu beharko litzake, besteak beste, BKB zerbitzua.
- Kudeaketa planen garrantzia aitorturik, ezinbestekoa da, Aldundia eta Jaurlearitzaren artean dagoen sistema informatikoaren inguruan sortutako laino ilunak argitzea.

- Aldundiak udal bideak berriztatzeko duen laguntza deialdian, baso erabilera ahalbideratuko dituen baldintza teknikoak exijitzea aldarrikatzen dugu.
- Baso Zerbitzuko giza baliabideen gestio egokia eskatzen dugu, herri langile hauen eta egunerokoan, baso kudeaketan dabiltzan jendearekin elkar-lanean.
- Lehen sektoreko, nekazal eta baso lanak ahalbideratuko duten udal bideen ordenantza amankomuna sustatzea eskatzen diogu udal elkarte den EUDEleri, irizpide teknikoaz gain, erabilpen kanona aplikazioan basogintzarekiko trataera diskriminatzaileak baztertuz.

BASA FAUNA

- Basurdeen eta orkatzen gain populazioari aurre egiteko Ehizaren paperaren aitortza eta honenbestez, ezinbestekoak diren baliabideak ipini ehiza kudeatzen duen Federazioaren eskutan.
- Basurdeen kalteordainak jasotzen dituen hitzarmena eguneratu eta orkatzen kalteei aurre egiteko hitzarmena garatu.
- Otsoa LESPRES zerrendatik ateratzeko tramiteak egin Madrileko Gobernuaren aurrean.

AZOKAK

- Herrietako azokak indartze aldera, Udalak eta Jaurilaritzaren arteko hitzarmen markoa onartu, azpiegiturak hobetzeko.
- Herrietako azoketan saldu ahal izateko baldintzak bateratu eta udal guztietarako eta azoka guztietarako baliogarri izango den prozedimendu bakarra eta amankomuna sustatu.
- Azoketan saltzeko baldintzen malgutasuna bultzatu, adibidez, bertan sukaldatutako jakiak saltzeko aukera emanaz.

AGROSEGURO

- Nekazal aseguruaren eskumena aldarrikatu eta gauzatu. Bitartean, agroseguro hobetzeko eta Euskal errealitatera egokitze lan taldea eratu 6 hilabeteko epean.
- Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu agroseguroren kontratazioa laguntzeko dirupartida %20an igotzea 2025ko aurrekontuan.

ELIKAGAI KATEA

- Egungo BEHATOKIren txostenen maiztasuna areagotu, orokorrean, 3 hilabetean behin eginaz.

- Egungo BEHATOKI txostenetan norberaren eskulanaren kalkulaua egokitu, UTaren balioa MAParen erreferentzizko errenta erabiliaz.
- Egungo BEHATOKI ardi esnearen txostenean, esneaz gain, gazta kiloa ekoizteko ekoizpen kostuak ere aztertu.
- Egungo BEHATOKIren txostenen eremua zabaltu, ekoizpenaz gain, eraldaketa eta distribuziora, beti ere, kontsumitzaileak eskatzen duen gardentasuna bermatze aldera.
- Eusko Jaurlaritzaren inspektzioak areagotu eta bereziki, 3 arloetan, salerosketa guztiak kontratuean egiten direla egiaztatzeke, elikagai freskoen kasuan ordainketa egiteko 30 egunetako gehienezko epea errespetatzen dela egiaztatzeke eta kontratu guztietan, Legeak dioen modura, ekoizpen kostuak estaltzen direla egiaztatzeke.
- Ardi esnearen alorrean, gaztandegi guztietarako kontratu tipo amankomuna sustatu.
- Distribuzio kateek nahiz ekoizle nahiz kooperatiba edo PYME ezberdinei aplikatzen dizkien deskontuen aurkako inspektzioak areagotu, ixilpeko deskontuen bitartez, baserritarraren errentagarritasuna okertzen baita.

AZPI PRODUKTUAK eta HONDAKINAK

- Gipuzkoako nekazal azpi produktuei (artilea) eta hondakinei (nekazal plastikoak) lurraldean bertan eman behar zaie irtenbidea eta horretarako, PIGRUG (Plan Integral de Gestion de Residuos Urbanos de Gipuzkoa) aldatu beharko litzateke, hirietako zabor kudeaketan nekazal hondakinen kudeaketa txertatzeko.

GAZTEAK – BELAUNALDI ALDAKETA

- GAZTENEK prozedimendua eguneratzea eta onartzen diren laguntzetan ere, ebazpenarekin batera, %90eko antizipoa gauzatu.
- Herri mendietan sartzeko eta hauetan egiten den PACerako azaleraren adjudikazioan, gazteentzako lehentasuna bermatu.
- Transmisioa errazteko PEPAC estrategian txertatua dagoen 7169 kooperazio interbentzioaren aplikazioa onartu euskal administrazioen aldetik eta dagokion dirupartida destinatatu helburu horretarako.
- Lehen sektoreko egitura eta elkarreentako zuzendaritza karguek ematen duten esperientzia baloratu laguntzak ematean, gure ustean, bide batez, sektoreak ezinbestekoa duen estruktura indartzea lortuko dugulako.

EROSKETA PUBLIKOA

- Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, bakoitzak bere eremuan eta bere eraginpean dauden jantoki kolektiboetan bertako elikagaien erosketa sustatzeko eta bermatzeko plangintza onartuko dute, 6 hilabateko epean.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailaren ardura diren etxebizitza promozioetan egurraren erabilera lehenestea eskatzen dugu bai eraikinetan bai hirigintza altzarietan.
- Bestalde, uste dugu, behar beharrezkoa dela, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta lurraldeko udalen artean, eraikin publikoetan energia berritzagarriak instalatzerakoan basoko lehengaia den biomasa lehenesteko konpromisoa politikoa.

NEKAZALTURISMOA

- Landa ostatuak nahitaez bete beharreko neurriak malgutzea (autobabesari buruzko dekretua, legionelosiari buruzko araudia, behe tentsioko ikuskapenak,...) jardueraren kostuak izugarri garestitzen dituztelako.
- Landa ingurunean erabilera turistikoko etxebizitzaren eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelen ugaltzeak, landa ostatuak arrisku larrian jartzen ditu, ezin bait dute heuren lehiatu, bete beharreko baldintzak askoz xamurragoak baitira. Beraz, egoera honi aurre egiteko legedia eguneratu beharko da.

Zerrenda luzea da, eta egiteke dauden lan denetzat laburregia. Gaur Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkariak duten talde politiko guztiei zuzentzea nahi izan dugu, zuei dagokizuelako Foru Aldundia, udalak eta Eusko Jaurlaritza ere zuzentzea.

Baina gure arazoei badituzte sorburu gehiago ere, erantzule gehiago ere, eta datorren asteetan jarraituko dugu haien aurrean ere dagokion aldarria egiten.

Lehen sektore bizia behar dugulako, etorkizuna izango duena, errentagarritasuna bermatuko diguna eta herriaren errespetua irabazita duena.

GIPUZKOAn / 2024-03-01